

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko irailaren 26a / 554. zenbakia



PAKISTANETIK BERGARARA

Gaur egun 50 pakistandar inguru bizi dira gure herrian

GIZARTEA: BEKE, EMAKUMEEN ALDEKO ELKARTEA/5 • MOTORRA: ZABALETA GARAILE URRAKIN/11

AZALA: MIREN ALMARAZ / JATORRIZKO ARGAZKIA: EDU MENDIBIL



UDAZKENA

Mirari

JANTZIDENDA

NEGUA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

2003ko jarduera programa



Bergarako
Emakume
Kultur
Elkartea

Urria

Eskulanak

Gehienez 15 lagun

- Martitzenetan eta eguenetan
09:00-10:30 eta 10:30-12:00
- Eguaztenetan 15:00-16:30
- Tokia: Irizar jauregia, Barrenkale 33
- Irakaslea: Koro Iraegi
- Prezioa: 15 euro

Interneteko ikastaroak

Gutxienez 6 lagun

- Urriaren 13tik 24ra (20 ordu)
astelehenetan edo egubakoitzetan
- Goizez: 09:00etatik 11:00etara eta
11:00etatik 13:00etara
- Arratsaldez: 16:00etatik 18:00etara eta
18:00etatik 20:00etara
- KZGunea Irizar jauregia, Barrenkale 33

Azaroa

Eskulanak

Gehienez 15 lagun

- Martitzenetan eta eguenetan
09:00-10:30 eta 10:30-12:00
- Eguaztenetan 15:00-16:30
- Tokia: Irizar jauregia, Barrenkale 33
- Irakaslea: Koro Iraegi
- Prezioa: 15 euro

Hitzaldia

Gaia: 'Tratu txarrak jasandako emakumea'

- Eguna: azaroak 25
- Ordua: 18:30ean
- Tokia: Miguel Altuna institutuko areto nagusian.
- Hizlaria: Nati Gutierrez psikologoa

Abendua

Eskulanak

Gehienez 15 lagun

- Martitzenetan eta eguenetan
09:00-10:30 eta 10:30-12:00
- Eguaztenetan 15:00-16:30
- Tokia: Irizar jauregia, Barrenkale 33
- Irakaslea: Koro Iraegi
- Prezioa: 15 euro

Gabonetako sukaldaritza ikastaroa

Gehienez 15 lagun

- Eguna: abenduak 18
- Ordutegia: 18:00etan
- Tokia: Artatse elkarte
- Sukaldaria: Alberto Elortza
- Oñatiko Zelai-zabal jatetxea.
- Prezioa: 10 euro

Izenematea: irailaren 29tik aurrera, 10:00etatik 12:00etara, elkarteko bulegoan Irizar jauregia / Barrenkale 33
Telefonoa: 943 76 26 94

Erakunde laguntzaileak: Emakunde, Euskadiko Kutxa, Eroski S.Coop.

ATREBENTZIAEZPADA/ Erabiltzen dozu garraio publikua? Komunikaziño onak dauzkagula uste dozu?



ITSASNE LAZKANO 16 urte **GARIKOITZ ARRIBAS** 17 urte **NIEVES AGIRRE** 64 urte **ISABEL IGARTUA** 74 urte **ESTITXU LOBATO** 19 urte **AMAIA LINZOAIN** 31 urte

Autobusa erabiltzen dot, batez be, eta batzutan tren. Segun eta nora juteko nahiko ondo komunikauta dago, gerituko herrixetara, batez be; baiña beste batzuta oso gaizki.

Eskolara eta Gasteizera juteko erabiltzen dot. Gasteizera juteko nahiko ondo dago, baiña herri txikixetara juteko, Hernanira, adibidez, oso gaizki, tren-eta hartu bihar da.

Bai, Oñatira juteko autobusa erabiltzen dot, eta Bergara Oñatikin oso gaizki komunikauta dago. Egunian bakararra dago, eta zapatu eta domeketan ez dago autobusik.

Gutxi erabiltzen dot, lehen gehixago. Izen be, Bergara ez dago bape ondo komunikauta, ezta gutxiagorik be! Azkoitia aldera juteko, esate baterako, ez dago ezer be.

Eskolara juteko erabiltzen dot, Arrasatera eta Eskoriatzara. Hara juteko ondo komunikauta dago, baiña hortik aparte, nahiko gaizki; autobus gehixago egon biharko lieke.

Oso gutxi erabiltzen dot. Lehenago Eibarrera junterrixa egitteko erabiltzen neban, eta nahikua autobus zeguan. Eta Arrasaterako be ondo dago. Kosta aldera juteko oso gaizki.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK EMAKUME TALDEA HERRIAN Herriko hainbat emakume BEKE, Bergarako Emakume Kultur Elkarte, sortu berri dute. Irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta, besteak beste, Udalean emakume sailik ez dagoela-eta, emakumearen alde lan egiteko asmoarekin eratu dute taldea. Zera esan dute: "Emakumea gizartean integrazteko eta autoestimua garatzeko bideak jarri nahi ditugu". /M.B.

ASTEKODATUA

50

HERRIAN DAGOEN PAKISTANDAR KOPURUA

Azken boladan herrira bizi izatera etorri diren pakistandarren kopuruak nabarmen egin du gora. Galdetutako pakistandarrek esan dutenez, gaur egun 50 inguru bizi dira herrian.

BESTEKEESANA

Urtarrilaren 21ean atxilotu zutenetik erabateko isolamenduan egon da, orain isolamendua kendu diotela esaten dute, ordubetik jendearekin egon daitekeelako. (...) Haren berri gutxi daukagu: bisita gutxi dugu, telefonoa erabiltzea debekatuta dauka, eta gutunak gorde egiten dizkiote. (...) Bisitetan gurasoek ordubetik daukagu harekin egoteko, eta arrebek ordu erdi. Orduan txandakatu egiten gara, aita alaba batekin joaten da, eta ni bestearekin. (...) Gose greba hasi zuenetik abokatuaren bidez soilik jaso dugu haren berri. Horregatik, Alemaniara joango gara asteburuan. Alemaniako lagunak zuen bisita, baina ordu laurden utziko digu; nola dagoen ikusi nahi dugu. Beraz, 3.600 Km egingo ditugu ordu laurden bat berarekin egoteko. MARI CARMEN AIASTUI / Paulo Elkororen ama 'Berria' / 03-09-21

BERAIEKDIÑO/ Iñigo Iñurrategi



Kontu kontari

Kontalari baino kontulari hobetzat jotzen dot neure burua, eta kontatzen hasitta teklak astintzen ari naizen momentu honetan 6.303.591.480 biztanle kontau dittut munduan, eta kontatzen jarraituta 8.577.589.365 ekoizpenerako lur hektarea. Kontu potoluak, kontutan hartzeko modukuak. Izan be konturatu be eitteke hazi ta hazi ari gara munduan, eta lanerako lur sailok, berriz, gero ta gutxi. Baten batek esango dau guk ez dogula larregi laguntzen biztanle hazkunde prozesu horretan. Izan be eskelek sekula baino orri gehixau betetzen dabe egunkarixetan, eta jaioberrixak berriz, aspaldixan gehixau, baina artian larregi be ez datoz. Gurian ez, baina beste nunbaiten ume negarra entzungo da franko, lerro apurrok idatzi dittudan tarte honetan 1.584 lagunetan gehitu da ta munduko biztanle kopurua. Gurian arazo larrixaua da ekoizpen lurren galeria. Gure

baserritarrek ez dauke arrazoi haundirik pozik egoteko. Gero ta esplotaziño gutxi, gero ta zailtasun haundixauak bertatik bizi ahal izateko... Lur sailik onenok asfaltoz ez bada hormigoiz jantzi dittugu, eta basarriko jeneruan preziuok barregarri. Lana urte guztian geratu be eitteke ein, ta gero aguantau ein bihar supermerkaun ura baino merkiau esnia erosi eta 35 orduko lan astia eskatzen ari dan kaletarrai... Baina gehixenoi ez dozku larregi ardura baserritar horren patuak, guri galtzairuak eta galtzairukinek emoten dozku jaten eta bertako tomatia ez bada kanpotik be brillante askua ekarriko dozku. Orain, 6.303.595.476 biztanle eta 8.577.589.164 ekoizpenerako lur hektarea daz munduan. Bertiguakin arazorik ez badaukazue eta etenik bariko zifra jarixu hori sentittu nahi badozue, honako helbide honetara jo: (<http://www.idrc.ca/fr/>). Inpresia emoten dau benetan.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5	KIROLAK / 10	KULTURA / 12
BEKE, emakume elkarte berria	Eskubaloia abian	Barreterapia ikastaroa
Emakume talde batek emakumearen alde lan egingo duen BEKE elkarte sortu du.	Senior mailako mutilen eskubaloitaldeak Basauriren aurka hasiko du liga domekan, kiroldegian.	Jardun elkarteak antolatatu du. Urrian izango da eta barrearen onurak landuko dituzte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 26
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

ZAPATUA, 27
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

DOMEKA, 28
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63

ASTELEHENA, 29
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15

MARTITZENA, 30
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74

EGUAZTENA, 1
PUY, Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUENA, 2
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (xanda) 943 76 24 40

Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46

Erztzaintza 943 76 53 40

Osasun etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK. 943 76 05 18

Udal Euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro	Labegaraieta
Domekak:	Domekak: 11:00.
09:30, 12:30.	San Lorentzo
Zapatuak eta	Zapatuak: 20:00.
lanegunak:	Angiozar
19:00.	Domekak: 11:30.
Sierbak	Moja Zaharrak
Lanegunak: 19:15.	Lanegunak: 09:00.
Zapatuak:	Zapatuak: 11:00.
19:00.	Mizpirualde
Domekak:	Lanegunak: 11:45.
11:30, 13:00.	Zapatuak: 17:30.
Osintxu	Antzuola
Domekak: 12:30.	Domekak:
Zapatuak: 19:00.	09:00, 11:30.
Elosu	Zapatuak eta
Domekak: 10:30.	lanegunak: 19:30.
Ubera	Uzarraga
Domekak: 10:30.	Domekak: 10:00.
San Juan	Elgeta
Domekak: 11:00.	Lanegunak: 09:00.
Elorregi	Zapatuak: 19:30.
Domekak: 10:30.	Domekak: 12:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina (Sierbetan)
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.

San Pedro
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

INFORMATIKA IKASTAROAK
KZGuneak herritar guztien-dako informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Era berean, dendariei zuzendutako ikastaroak izango dira. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

ARITZETAREN ZOZKETA
Aritzeta abesbatzak egindako zozketan 186 izaia saritutako zenbakia. Txartelaren jabeak Zestoako bainuetxean bi pertsonendako aste bukaera irabazi du.

MARGO IKASTAROA
Beart elkarteak margo ikastaroa antolatzen du. Eskolak martitzenetan izango dira, 16:30etik 20:30era, urriaren 7an hasita. Izen ematea: 656 72 44 49.

GIMNASIA ERRITMIKOA
Ariznoa gimnasia erritmikoko taldean parte hartzeko interesa duten neskatilek ondoko telefonoetara dei dezakete: 943 76 56 75 edo 656 78 99 26 (Javi).

GRIPEAREN KONTRA
Gripearen kontrako txertaketa kanpainak urriaren 31ra arte iraungo du. Txertoa ipintzeko interesa dutenek ambulatiora dei dezakete (943 03 54 00), 14:00etatik 17:00etara.

JARDUNENAGENDA

TRIKITI ETA BERTSO ESKOLAK ETA BARRETERAPIA
Jarduneko trikitixa eta bertso eskolan izena emateko epea zabalik egongo da irailean. Urrian, berriz, barreterapia ikastaroa hasiko da. Ikastaroa zapatu goizetan emango dute, Arrizuriagan. Argibideak 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 zenbakietan.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolioa (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Kapirixo elkartearen aurkezpena UNEDen

Debagoieneko kultura ondarea babesteko helburua zuen Kapirixo elkarteak aurkeztu zuten 1993ko irailaren 24an, UNEDeko aretoan. Besteak beste, Lourdes Romano, Juantxo Madariaga, Bitoriano Gandiaga eta Jerardo Elortzak hartu zuten parte aurkezpenean. Jende ugari batu zen.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Tartania"

Ibilgailu zahar eta destartatua, autobusa batik bat.
—Elgetako "Osintxu"n tartanan joate giñan txikittan Arantzazura.



GORKA ORTEGA

ASTEKOFILMAK

'DESCONGÉLATE'
ZUZENDARIA: FELIX SABROSO ETA DUNIA AYUSO. AKTOREAK: PEPE NIETO, CANDELA PEÑA, LOLES LEON.

HARIA. Felix Sabrosok eta Dunia Ayusok zuzendutako komedia. Justok aktore izan nahi du. Egun batean, zinema zuzendari batek bere filmeko protagonista izateko eskaintza egingo dio...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●

'DORAEMON ETA MAIEN INPERIOA'
ZUZENDARIA: TSUTOMU SHIBAYAMA.

HARIA. Japoniatik dator kigun marrazki bizidunetako filma. Doraemon katu kosmikorekin abenturekin gozatu ahal izango dute txikiak. Ate magikoa ireki, eta denboran bidaiatuko dute Nobitak eta Doraemonek. Bidaia zoragarri horretan, Maien Inperioa ezagutuko dute.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 17	9 °C
MAXIMOA Eguaztena, 17	33 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	9,3 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 17	33 °C 9 °C - l/m²
Eguena, 18	32 °C 10 °C - l/m²
Egubakoitza, 19	32 °C 10 °C - l/m²
Zapatua, 20	32 °C 12 °C - l/m²
Domeka, 21	32 °C 13 °C - l/m²
Astelehena, 22	27 °C 15 °C 5,2 l/m²
Martitzena, 23	18 °C 15 °C 4,1 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

EL CARMEN
GARBIKETA ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua
Banaketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbazioak
Moketa garbiketak
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39
20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23

EMAKUMEA/ Elkartearen asmoa da emakumea gizartean integratzeko eta autoestimua garatzeko bideak jartzea

Emakumearen alde lan egingo duen BEKE elkartea sortu dute hainbat emakumek

MONIKA BELASTEGI

Ekainean sortu zuten BEKE, Bergarako Emakume Kultur Elkar-
tea, eta emakumeendako esku-
lan eskolak izan dira abiapuntu.
Irabazi asmorik gabeko taldea
da eta laster hasiko dira euren
burua ezagutzera ematen. Eki-
taldi sorta antolatuta dute,
emakumea ardatz.

Emakumeengatik eta emakume-
entzat lan egin nahi duen elkar-
te gisa definitu dute BEKE elkar-
teko kideek. Emakumea gizarte-
an integratzeko eta haren
autoestimua garatzeko bideak
jartzea da euren asmoa.

ESKULANAK ELKARTEAREN ABIAPUNTU

Beharrak eta gogoak sortutako
taldea da BEKE. Udalak eskulan
ikastaroak antolatzeke ematen
zituena laguntzak kendu egin ditu
aurten. Horrela, ikastarookin
jarraitu ahal izateko laguntzak
non eta nola lortu aztertzen hasi
ziren. Udalean emandako ahol-
kuei jarraituta, emakume elkar-
tea antolatzea erabaki zuten, hala
hainbat erantzutarako jo eta lagun-
tzak lortu ahal izateko. Hala ere,
eskulan ikastaroak antolatu nahi
izatea ez da nahikoa emakume
elkar-
te bat sortu eta dirulaguntzak
jasotzeko. Esan dutenez, elkar-
teak
implikazio handiagoa behar du eta
emakumea gizartean integratzeko
eta autoestimua garatzeko
arlotan egin behar du lan.



MONIKA BELASTEGI

Loli Conde, presidentea; Dorleta Zabalo, idazkaria; Koro Iraegi, diruzaina; eta Mari Jose eta Jone Curado, batzordekideak.

Hori jakinda, Beasaingo
Asmube eta Arrasateko Eki tal-
deetara jo zuten eta gaiaren gain-
ean janzten eta inplikatzeko joan
ziren. Baita emakumeengatik
eta emakumeendako lan egingo
zuen elkar-
tea izatearekin berotzen ere. Horri, gainera, beste
gauza bat gehitu behar zaiola
azaldu dute: "Herri gehienetan ez

*Emakumeengatik
eta haiendako
lan egin nahi duen
elkar-
tea da BEKE
sortu berria*

bezala, hemengo Udalean emakume sailik ez egotea".

Hala, ekainerako elkar-
te bat zegoen, eta, besteak beste,
Emakunderen eta Euskadiko
Kutxaren laguntza jaso dute.

ELKARTZEKO LOKALA

Oraingoz 30 bazkide ditu elkar-
teak, eta poliki-poliki gehiago iza-

tea nahi dute. Talde feminista ez
direla azaldu dute, emakumearen
alde lan egin nahi duen taldea bai-
zik. Horretarako Udalera ere jo
dute laguntza eske: egoitza bat
eskatu diote eta zer erantzungo
duen zain daude. Zera esan dute:
"Egoitza batean batzartu, elkar-
tu edo besterik gabe egoteko toki
bat izango genuke. Emakume
asko dago etxetik kanpo nora jo
ez duena, esaterako, eta hemen
beste emakume batzuekin egote-
ko, berba egiteko... aukera izan-
go lukete. Gu ez gara abokatuak,
ez psikologoak, baina taldean
elkar-
tu eta berba egiteak asko
laguntzen du". Orain arte Udalak
laguntza handirik eman ez diela
azaldu dute, baina egoitza bat
lagatzeko esperantza daukate,
kontuan izanda, batez ere,
"herrian ez dagoela emakume-
aren arloa jorratuko duen ezer".

BEKE ekainean sortu zen eta
dagoeneko badute abendura bitar-
teko ekitaldi sorta bat prest: esku-
lan ikastaroak egongo dira urrian,
azaroan eta abenduan, eta izena
emateko epea zabalik dago; Inter-
net ikastaroa antolatu dute urria-
ren 13tik 24ra bitartean, KZGu-
nean; hitzaldia egongo da azaro-
an, tratu txarrak jasaten duten
emakumeen gainean; eta aben-
duan Zelai-zabal jatetxeko Alber-
to Elortzak Gabonetako sukaldaritzaren gaineko ikastaroa egingo du. Horrez gain, Gabonetako loteria atera dute, eta hainbat komertziotan dago salgai.


Hasi dira parkerako sarrera eta plaza berria egiten Santa Anan

M.B.

Hasi dira Santa Ana parkean
ermitaren ondoan azalduko
XVI. mendeko arku luizteko
plazatxo eraikitzen. Horrekin
batera, plazara emango duen
sarrera berria ere egingo diote
parkeari.

Hasi dira Santa Ana parkean,
ermitaren ondoan, plazatxo erai-
kitzen. Iaz, ermitaren ondoan
zegoen eraikina botatzen hasi
zirenean, XVI. mendeko arku
azaldu zen eraikinaren pareteta-
ko batean. Hori horrela, bota
beharrean arku edertzeko pla-
zaxoa egitea eta ondoan parke-
rako sarrera berria egitea erabaki
zuen Udalak. Plazatxo hori eta
sarrera berria egiteko lanak dira,
hain justu ere, orain egiten dihar-
dutenak.

Sarrera Bolu kaletik egingo
dute eta plaza berrira emango du.
Gaur egun dagoen malda kon-



MONIKA BELASTEGI

Lanek 42.000 euro inguruko aurrekontua dute.

pontzeko harrizko eskailera egin-
go dute; plazara emango duen
eskailera, hain justu ere.

Plazari dagokionez, arku eta
kokatuta dagoen paretatik txun-
du egingo dituzte; zoruaren hor-
migoizko losa handiak jarriko

dituzte eta arkuari protagonismo
handiagoa emateko argiztatu
gingo dute.

Arkuari eta eusten duen pare-
tari dagokienez, antzinako Arru-
riaga errabaleko etxe baten arras-
toak izan litezke.

M.B.

Astelehenean egindako ezohi-
ko bilkurak bota zuen atzera
Paulo Elkororen lagunek eta
senitartekoei aurkeztutako
mozioa. EAJ-EAK eta PSE-EEK
eman zioten ezezkoa mozioari.
Aralar, berriz, alde agertu zen.

Hiru gauza eskatzen zizkion mo-
zioak udalbatzari: batetik, Paulo-
ren estradizioaren kontra egitea;
bestetik, Alemaniaren libre eta
orain arteko bizimoduarekin
aurrera egiten utzi diezaiotela es-
katzea; hirugarrenik, orain arte
esandakoa Euskal Herriko komu-
nikabideei, Alemaniako lehen-
dakaritzari, Kanpo Harreman-
tarako Ministerioari eta Auzite-
gi Konstituzionalari bidaltzea.

Mozioak ez zuen aurrera egin:
EAJ-EAK eta PSE-EEK mozioari
ezezkoa eman zioten eta Arala-
rrek mozioarekin bat egin zuen.

Osoko bilkurara herritar uga-

ri hurbildu zen, eta bozketa aurre-
tik, Pauloren arrea Kristina
Elkorok eta Bergara Aurrerako
Mikel Eguren hitza hartu
zuten. Kristina Elkorok Pauloren
prozesuaren berri eman zion
udalbatzari eta zinegotzietan eska-
tu zion, alderdiaz gaindi, banako
gisa hartzea erabakia. Bestalde,
errugabetasun-presuntzioa ere
aipatu zuen, eta Paulo epaituta
ez dagoenez, erruduntzat ezin
daitekeela hartu gogoratu. Egure-
nek bere taldeak bozketan parte
hartu ezina ekarri zuen gogora.

Ezohiko bilerak Pauloren
gurasoek Alemaniara hura ikus-
tera egindako bisitarekin egin
zuen bat. Astelehenean 22 egun
bete zituen estraditatu eta izate-
ko egiten diharduen gose greban.
Familiakoen esanetan, argalago
dago, baina gogobetez. Bestalde,
haren lagunek eta sendiak dei-
tutako manifestazioa egongo da
etzi, domeka, 12:30ean. Es-
tradizioaren kontra izango da eta
San Martin plazatik abiatuko da.

San Migel jaiak ospatuko dituzte gaurtik astelehenera Angiozarren

MONIKA BELASTEGI

Angiozarren San Migel jaiak ospatuko dituzte gaur hasi eta astelehenera bitartean. Ekitaldi ugari egongo da: herri kirolak, musika, jolasak... Bestalde, alkate aldaketa ere egingo dute, domekan.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan hasiko dira jaiak, etxafuego eta kanpai jotzarekin. Ondoren, Kalanña taldeak emanaldia egingo du, eta gero, Diskoteka Trikizio taldearekin dantzarako musika egongo da. Goizaldean, berriz, txokolatea emango dute.

Bihar, zapatua, 15:30ean plater tiroketa egongo da, eta 17:30ean, Briska Txapelketa, Pagomendi elkarte. 21:30ean mozorro herri afaria egongo da elizpean eta menuan sardinak eta saiheskia egongo dira. 00:00etan, berriz, dantzaldia egongo da Miramar taldearekin.

ALKATE ALDAKETA DOMEKAN

Etzi, domeka, meza nagusia egongo da 11:00etan, eta mezaren ondoren alkate aldaketa izango da elizpean: Mila Elortzak jarraituko du auzo alkate. Gero, Udal Musika Bandaren emanaldia egongo da. 18:00etan, Zelaik eta Aimarrek



Domekan herri kirolak ikusteko aukera egongo da, 18:00etan.

pentatlona egingo dute, eta honako probak egingo dituzte: harrijasotzea, enbor ebaketa, trontzak, txingak eta korrika.

Astelehenean, San Migel eguna, meza nagusia egongo da 11:00etan, eta horren ondoren, erretiratuendako luntxa egongo

da Pagomendi elkarte. 16:00etan, haurrenako puzgarriak eta jolasak egongo dira plazan, eta parte hartzen duten ume guztiek merienda izango dute Pagomendi elkarte. Azkenik, iluntzean, jaiak amaitzeko, San Migel zeruratuko dute.

LABUR

Bergara Aurrerak egindako proposamenaren haritik, azalpena eman nahi izan du Aralarrek

Bergara Aurrerak udal gobernuan dauden taldeei egindako proposamenaren berri eman genuen BERRIGARAN duela bi aste. Horren gainean hainbat azalpen eman nahi izan ditu Aralar alderdiak. Proposamena gobernuan dauden taldeei aurkezteari egoki eta interesgarri irizten dio Aralarrek; ez, aldiz, proposamena egin eta aste berean prentsara iragartzea. Aralarrek kideen ustez, horrelako elkarrizketa prozesuak maila diskretuagoan egin behar dira, eta argitaratu, berriz, prozesuaren bukaeran.

Gehitu dutenez, gauzak horrela egiteagatik badirudi Bergara Aurrerako kideek proposamena egin bitartean gainerako alderdiek ez dutela ezer egin. Eta hori horrela ez dela azaldu dute: batek, euren zinegotzietako bat ez erabiltzea erabaki zutela ekarri dute gogora, zinegotzi hori Bergara Aurrerari dagokiolarik; bestetik, uda aurretik eurek ere gainerako alderdiei proposamen irekia egin zutelara adierazi dute. Lanerako proposamen bat gehiago besterik ez dela gehitu dute, Bergara Aurrerak aurkeztutakoa bezalakoa, eta dagoeneko erantzunik jaso dutela. Proposamen gehiago izanez gero, horiek ere gustura hartuko dituztela esan dute.

Ekonomi Jardueren Gaineko Zerga ordaintzeko epea datorren astetik zabalik

Aurtengo Ekonomia Jardueren Gaineko Zergaren ordainagiriak ordaintzeko epea datorren eguaztenean, urriaren lehen, zabalduko dute. Ordainketarako borondatezko epea azaroaren lehen amaituko da. Epe hori amaituta, ordutik aurrera errekaruaz kobratuko dute.

Ordainagiriaren ordainketa banketxeren baten helbideratuta duten zergadunei banketxearen bidez bidali eta kobratuko zaie. Ordainagiria helbideratu gabe dituztenen kasuan, datozen egunetan etxean jasoko dute ordainketa egiteko beharrezkoa duten agiria. Agiri horrekin edozein banketxetatik edo udal bulegotik pasa daiteke ordainketa egiteko. Halaber, agiri hori urriaren 31 baino lehen jaso ezean edo azalpenen baten beharra izanez gero, kontu-hartzailearen bulegotik pasa daiteke.

GIDA 04 abian!

Telefono berria jarri baduzu

edo aldatu baduzu,

deitu 943 71 23 91 zenbakira edo bidali

ondorengo helbidera:

publi@goiena.com

Gida Komertziala,

zure eskuetan!

Informazio gehiago:

943 71 23 91

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ERREPORTAJEA/ Guztiak gizonzkoak dira; gehienak gazteak, 20-30 urte artean dute eta beste toki batzuetan baino lan gehiago dagoelako etorri dira

Lehenak duela bost urte etorri, eta gaur egun 50 pakistandar inguru daude herrian

MONIKA BELASTEGI

Azken boladan gora egin du pakistandar kopuruak herrian. Lehenengoak duela bost urte etorri ziren, eta gaur egun 50 inguru daude. Estatuko beste herri batzuetatik etorri dira. Lanarengatik dela diote; hemen inguruan gehiago eta hobeto ordainduta dagoelako.

Mondragoen, Oñatin eta Elgoibarren ere bakan batzuk bizi diren arren, Bergara da inguruko herrien artean pakistandar gehien batu diren herria. Halaxe azaldu digute euretako hiruk: Jahangir-ek, Khurshid-ek eta Yasir-ek.

Azaldu dutenez, duela bost urte etorri ziren lehen pakistandarrak herrira. Ez ziren, baina, Pakistandik zuzenean etorri. Logroñotik etorri zirela azaldu dute. Logroñon hiru mila pakistandar inguru daude, eta erakuntzan egiten dute lan. Horrela, hango enpresa eraikitzaileekin hona lanera etorri, eta halaxe ezagutu zuten Debagoiena.

Hemen lan gehiago eta lan baldintza hobekak dituztela azaldu dute, eta horixe izan zen Logroño laga eta hona etortzeko arrazoiak. Hori horrela, lehenengo etorri ziren haien ahotik hemen lan gehiago eta baldintza hobekak daudelako oihartzuna hedatzen joan zen, eta hori da gero eta pakistandar gehiago etortzeko arrazoi nagusia. Andaluziatik, Mantxatik, Madrildik... Estatuko toki askotatik etorri dira, eta gaur egun 50 inguru daude herrian. Euretako asko, gainera, Pakistango zona berekoak dira, Islamabad hiriburutik gertu dagoen Puran hirikoak, hain zuzen ere.

LAN BALDINTZA HOBEAK ETA ERRESPETU HANDIAGOAK

Eskoriatzan, Elorrion, Aretxabaletan... Inguruko herrietan egiten dute lan, eta, batik bat, erakuntzan eta denetarikoa lantegietan. Soldataren kasuan, 1.000-1.200 euro inguru kobratzen dutela azaldu dute, eta kontratuak Estatuko beste toki batzuetan baino luzeagoak egiten dizkietela.

Bestalde, hona etorri aurretik Espainiako hainbat herritan bizi izan dira gehientsuenak, eta hemen hobeto hartu dituztela azaldu dute. Hemen inguruan errespetuarekin hartu dituztela gehitu dute, eta, beste toki batzuetan ez bezala, kanpotarrak izateagatik ez dutela arazorik izan.

Herrian pakistandarren ugartzearen beste adierazgarri bat Zubiaurren zabaldu duten mintzaleku edo lokutorioa da. Beste herrialde batzuetara deituz gero delia merkeago egiteko aukera dute. Baina herri barruko eta



Jahangir Ahmed, Khurshid Ahmed eta Yasir Ahmed aurten etorri dira Bergarara eta hirurak elkarrekin bizi dira beste bi pakistandarrarekin batera, Irizar pasealekuan.

EDU MENDIBIL

Jahangir, Khurshid eta Yasir, etorri berri



JAHANGIR AHMED

- 22 urte
- 1998an estatura etorri zen eta aurtengo martxoan ezker dago Bergaran
- Aretxabaletako enpresa batean egiten du lan
- Ezkongabea da



KHURSHID AHMED

- 30 urte
- 1979an Pakistandik Andaluziara joan zen gurasoekin. Hilabete darama Bergaran
- Elorrion egiten du lan
- Emaztea eta hiru seme-alaba ditu Pakistanen



YASIR AHMED

- 18 urte
- 1998an estatura etorri zen eta aurtengo apirila ezker dago Bergaran
- Elorrioko enpresa batean egiten du lan
- Ezkongabea da

Duela bost urte etorri ziren lehen pakistandarrak herrira; gaur egun 50 inguru daude

Estatu barruko deiak egiteko ohiko telefono kabinak merkeagoak direla gehitu dute.

GUZTIAK GIZONEZKOAK

Denak gizonzkoak dira, ez da emakumezkoak etorri. Gainera,

Zona honetan lan gehiago eta hobeto ordainduta dagoelako etorri dira

gazteak dira: gehienek 20 eta 30 urte artean dute, eta askok emaztea eta seme-alabak dituzte Pakistanen. Khurshid-ek, esaterako, 30 urte ditu eta emaztea eta hiru seme-alaba ditu han. Familia horren urrutia izatea

Euretako asko emaztea eta seme-alabak Pakistanen lagata etorri dira hona lanera

gogorra dela dio, baina etxe batek eta familia mantentzeak balio duenarekin hona ezin dituela ekarri esan du. Khurshid bezalako asko dago, ezkontuta eta seme-alabekin. Izan ere, han oso gazte ezkontzen direla

azaldu du, eta hona etorri orduko asko ezkontuta daudela. Gainera, han familiak adosten du ezkontza, Khurshid-ek azaldu duenez, nahiz eta poliki-poliki gauzak aldatzen doazen. Bere kasuan, 5 urte zituela bazekien, gurasoek hala erabakita, lehenegusina batekin ezkontuko zela.


Jahangir-i ere -22 urte ditugurasoek adostu diote ezkontza: 2004ko abenduan joango da Pakistanagera ezkontzera.

Familiarengandik urrun egotea penagarria dela esan dute. Hilero irabazten duten diruaren zati bat familiari bidaltzen diote, eta horrekin familia ondo bizi daitekeela gehitu dute.

OHITURA EZBERDINAK

Normalean kalean bizimodu gutxi egiten dute: "Aste barruan lanetik etxera joaten gara, eta etxean karta jokoan-eta egiten dugu. Asteburuetan cricketean egiten dugu. Eta egubakoitzetan Eibarko meskitara joaten gara. Erlizioz musulmanak gara, eta zuek dituzuen ohituretako asko debekatuta daude gure erlijioan. Dena dela, denetik dago".

Bestalde, hizkuntza muga bat dela adierazi dute. Euretako batzuk gaztelaniaz ondo moldatzen dira Espainian hainbat urte eman dituztelako, eta beste batzuk Helduen Eskolara joaten dira gaztelaniazko eskolak jasotzera.



BIDAL ETORBIDEA

Pitxitxi eta bere lagunek omenaldi xumea egin zioten Bidal Muxikari aurreko martitzenean, San Martin egunean. Pazkoetan Erreki jatetxeko Xabier Etxaniz tabernari onena izendatu zuten, eta San Martinetan txikiteroaren figura aldarrikatu nahi izan dute. Azken urteotan nabarmen egin du behera txikiteoak, baina oraindik badira lagunartean txikito batzuk hartzeari eusten diotenak. Esan bezala, Euskal Herrian hain zabaldua izan den ohitura hori aldarrikatzea zen Pitxitxi eta bere laguneren asmoa. Horretarako, herriko pertsonaia ezagun bat aukeratu behar eta Bidal Muxikarengana jo zuten. Bere lagunekin Intxorta tabernan egoten da askotan eta tabernaren sarreran *Bidal Etorbidea* dioen plaka jarri zuten. Era berean, aureskua dantzatu zioten. Markel Irizar txirrundulariak lagundu zion plaka deskubritzen, eta koadrilako lagunek hainbat kantu eskaini zioten.

JON, REALEKO IZARREKIN

Jon Errasti Realeko jarraitzaile finenetakoa dugu. Ahal duen bakoitzean ez du aukerarik galtzen bere idoloak agurtzeko, eta dagoeneko oso ezaguna da Realeko jokalarien artean. Denboraldiaren atarian, Realekoek Donostiako alde zaharreko Santa Maria elizan meza entzun eta ondoren elkarte ezagun batean bazkaria egiteko ohitura daukate. Hara joan zen Jon argazki-kamerarekin eta ia taldeko jokalaria guztiekin argazki albuma osatu zuen: Nihat, Alkiza, Arantzabal, Aranburu, Denoueix entrenatzailea, Lee Chun Soo korearra... Argazkian, Darko Kovacevic eta Xabi Alonsorekin ikusten duzue, Santa Maria elizaren sarreran. Martxa honetan talderako fitxatu beharko dute Jon!



KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

FRONTOI




TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

ZABALA

JATETXEA • OSTATUA




Labegarieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

- L** Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- L** Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- L** Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa **16** urte bete aurretik!
Eta **autoarena** **18** urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

BERGARARRAK MUNDUAN

SERGIO ROMERO

21 URTE / INTERPRETAZIOKO IKASLEA / MADRILEN BIZI DA

“Badirudi modan dagoela aktore izatea, eta lana topatzeko konpetentzia ikaragarria da”

EDU MENDIBIL

Dagoeneko bi urte egin ditu Madrilén Sergiok. Interpretazio ikasketak egitera joan zen eta Juan Carlos Corazzaren eskolan jardun ondoren, gaur egun Jorge Eines irakasle argentinarrarekin dihardu: “Bi metodo guztiz diferentek dira. Corazzarekin zure esperientzia pertsonaletan oinarritu behar duzu antzezteko orduan eta Einesekin lantzen dugun metodoa, berriz, biziagoa da, aktoreen akzioa eta erreakzioa bilatzen du”. Aste barruan, egunero sei orduko eskolak izaten ditu Sergiok, eta arratsalde zehar baten dabil lanean.

Madrilgo bizimodura primeran egokitu da eta han jarraitzeko asmoa du, oso gustura dago eta: “Orain izugarri kostatuko litzaidake Bergarara itzultzea. Hemen ikasitakoarekin beharbada Euskal Herrian lana topatuko nuke, baina nahiago dut hemen jarraitu. Madril oso ondo dago, asko gustatzen zait, oso hiri bizia delako. Kultura aldetik duen eskaintza ikaragarria da eta hona datorren jendea gauzak egiteko gogoz dago. Egia esateko, Madrilgo jende gutxi ezagutu dut, ia guztiak kanpotarrak dira, eta fusio moduko horrek gauzak egitera bultzatzen zaitu, orokorrean motibazio handiko jendea duzualako inguruan”.

Hala ere, aktore batendako lan aukerak topatzea ez da horren erraza: “Jende asko dabil, gehiegi beharbada. Badirudi modan dagoela aktore izatea, eta casting-etara jende mordoa aurkezten da. Gainera, modeloek eta, nahiz eta aktore ikasketarik ez izan, mundu horretan sartzeko borrokan dihardute eta zaila da lana topatzea, konpetentzia ikaragarria delako”. Besteak beste, lau film laburretan hartu du parte Sergiok Madrilera joan zene-

“Madril oso ondo dago, izugarri gustatzen zait eta hemen jarraitzeko asmoa dut”


tik eta beste hainbat lan ere egin ditu; tartean, telebistarako iragarki bat (Camy etxeko Maxibon izozkiarena). Film labur horietako bat, *Pastel de Amsterdam* izenburukoa, estreinatzeaz dago hurrengo hilabeteotan. Lana topatzeko casting-etara aurkeztea ia eguneroko gauza bihurtzen da eta joan zen astean bertan tele-sail berri baterako proba bat egin zuen Sergiok: “Bakarrizketa bat gertatu behar izan nuen eta lau lagunen aurrean antzeztu. Ikusi behar zorterik dagoen...”.

Telebistan baino, antzerkian eta zine-man lan egitea nahiago duela diosku Sergiok. Eskolan antzerki lanak egiten dituzte, eta, horrez gain, *La leyenda del monte de las ánimas* (Cervantesek idatzitako lanean oinarrituta) obran hartu zuen parte. Etor-kizunean, berriz, Tennessee Williamsen *El zoo de cristal* antzerki lana egin nahiko luke, lan hori oso gogoko du eta: “Komediak baino, nahiago ditut bestelako lanak. Naturaltasunari eustea zailagoa egiten zait


komedietan, exajeratu samar antzezten dut horrelakoetan”.

Interpretazio eskolek eta lanak uzten dioten aisialdi apurra atsedean hartzeko eta zinema ikusteko aprobetxatzen du. Askotan joaten da Filmotekara, film klasikoak ikustera. Era berean, kontzertuetara joan edo etxean musika lasai entzutea atsegin du: “Ahal dudanean lagunekin eta kanpora afaltzera joatea gustatzen zait, baina azkenaldian nahiko lasai nabil. Ez naiz askorik ateratzen. Aste bukaera helden denerako lehertuta egoten nahiz, eta hobe da atsedean hartzea”.

Madrilgo La Latina auzoan bizi da, Rastroan, eta Donostiako lagun bat, Gorka, du bizikide. Aktore baten tribulazioak Madrilén Sergiok kontatu dizkigunak. Aktore ospetsu izaten denerako ere hitzordua eskatu diogu.



MINGAINARITIRAKA



Maite Uribe-Etxeberria

EROSKI BIDAIK AGENTZIAKOA

Turismo ikasketak egin zituen Maitek, eta azken lau urteotan Eroski Bidaiak agentzian dihardu lanean. Irizar kaleko bulegoan dihardu, komertzial arloan. Udako oporrak atzean utzita, bidaiak berri bat egitearekin egiten du amets.

- Nora joan da jende gehiena udako oporretan? Estatu barruan Mediterraneo aldera eta uharteetara eta atzerri-rako Greziarako eta Senegalerako izan ditugu eskari dezente.
- Eta zu nondik nora ibili zara? Edinburgon eta Vienan izan naiz.
- Kanpina ala hotelak nahiago? Kanpinak ondo daude, baina hotelak erosoago dira...
- Hurrengo bidaiak, nora? Kanadara edo Australiara joan nahi nuke.
- Uharte desertu batera hiru gauza eramatekotan? Lagun bat, liburu on bat eta urpean ibiltzeko tresnak.
- Eta zer ez zenuke eramango? Iratzargailua.
- Egunkarian irakurtzen duzun lehenbiziko gauza? Normalean atzeko orrialdetik hasten naiz.
- Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu? Irakurri, kirola egin eta musika entzun.
- Kirol gustukoena? Orain lasterka egiten dihardut, azaroan Behobia-Donostia proba joateko asmoarekin.
- Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat? *Memorias de una geisha* (Arthur Golden)/*Lugares comunes* (Aristarain)/REM.
- Gustuko janari eta edari bana? Pasta eta ardoa.
- Sukaldari ona zara? Ez, jatu on bai, baina sukaldari eskasa...
- Etxeko lan gorrotagarriena? Plantxa egitea.
- Parrandazalea zara? Parrandarako herri bat? Normala. Edonon dago parranda egiteko aukera.
- Loterian milioi bat euro irabaziko bazenu? Etxea erosi eta bidaiatu.
- Aste bukaerarako plan on bat? Kostaldera joan, eguna pasatzera.

EDU MENDIBIL

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerrek 13 behea. Bergara
943 76 55 00

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

ESKUBALOIA

Senior mailako taldeak Basauriren aurka hasiko du liga domekan Labegaraietan

Euskadiko Ligan jardungo duen senior mailako mutilen helburua mailari eustea izango da

EDU MENDIBIL

Senior mailako eskubaloia taldeak Basauriren aurka hasiko du liga oraingo domekan kiroldegian, 12:30ean. Aurreko denboraldian ozta-ozta lortu zuten bergarrek Euskadiko Ligan jarraitzea, eta aurten ere mailari eustea izango da helburua.

Taldean hainbat aldaketa izan direla-eta, mailari eusteko gogor borrokatu beharko dutela adierazi digu Edu Orgazek. Edurekin batera, iaz jokatzeko ibili ziren Gorka Astaburuagak eta Lander Juaristik egingo dituzte entrenatzaile lanak. Ibai Goenagak eta Aitor Aldanondok utzi egin dute taldea, eta baja horiek taldeak igarri egingo dituela esan digu Orgazek. Bestalde, Joseba Larrañaga eta Mikel Larrañaga taldera itzuliko dira, aurreko denboraldian atsedean hartu eta gero. Gazte mailako taldetik, berriz, Mikel Larrañaga, Jon Zangitu eta Jon Ugartetxea igo dira senior mailako taldera. Oraindik ere aldaketaren bat edo beste gerta daiteke, entrenatzaileek taldea guztiz osatzeke dute-eta.

DOMEKAN LEHEN PARTIDUA

Euskadiko Ligara igo berri den Basauriren aurka jokatu du lehenbiziko partidua Bergarak,



Argazkian, joan zen urteko senior mailako taldea. Aurten ere mailari eustea izango da bergararren helburua.

domekan, kiroldegian, 12:30ean. Lehen partidua irabaztearen garrantziaz egin digu berba Orgazek: "Hasi baten, gurekin mailari eusteko lehian izango da Basauri, eta ezinbestekoa da domekan partidua irabaztea".

Taldea fisikoki oso ondo ikusten du Orgazek eta jokalariek denboraldia hasteko gogoz daude. Abuztuaren 25ean hasi ziren entrenatzen eta aurre-denboraldian zazpi partiduko jokatu dituzte. Aurreko zapatuan hiruko txapelketa jokatu zuten Iruñean bergarrek: Anaitasunari 20-17 irabazi zioten eta Bete Onaren aurka 19-19 egin zuten. Hala, entrenatzaileak pozik geratu ziren taldeak Iruñean erakutsi zuen mailarekin.

Euskadiko Ligan 14 talde izango dira lehian. Badirudi Zarautz, Urduliz eta Ereintza dira sailkapeneko goialdean egoteko favoritoak. Azken denboraldian bergararrak hamabigarren postuan sailkatu ziren.

Carlos Juez txirrindulari arabarrak irabazi zuen San Martin saria zapatuan

E.M.

Ruta Europa taldeko Carlos Juez txirrindulari arabarrak irabazi zuen zapatuan jokatuako San Martin sariaren 38. ekitaldia. Juez bakarrik heldu zen Matxiategiko helmugara: ibilbideko 108 kilometroak egiteko bi ordu, 40 minutu eta 47 segundo behar izan zituen. Batez beste, 40,303 kilometro orduko abiadura egin zuen irabazleak. Juezen atzetik lau lagunez osatutako taldetxo iritsi zen, 50 segundora: Juan Pablo Uriarte (Pan), Iñigo Lariz eta Iban Iriondo (biak Ulma-Cegasakoak) eta Xabier Leal (Pan). Lehen bergararra Debabarrena taldeko Zigor Medina izan zen, 25. postuan, irabazlearengandik lau minutu eta 30 segundora.


Zapatuko lasterketan 89 txirrindulari hartu zuten parte. Espero zitekeenez, helmugatik zortzi kilometrora zegoen Asen-

tzioko mendatea erabakigarria gertatu zen. Carlos Juezek Angozarrera bidean egin zuen azken eraso, eta ihesaldiko lagunak atzean utzi zituen. Asentziotik lehen postuan igaro ondoren, abantailari eutsi eta San Martin saria eskuratu zuen.

LEHENDAKARI TXAPELKETA

Zapatuko lasterketa Lehendakari Txapelketarako puntuagarria zen. Juez irabazleak 25 puntu lortu zituen. Bestalde, txapelketa irabazteko favoritoek, Iker Leonet (Ulma Cegasa) eta Igor Anton (Orbea Olarra) txirrindulariek ez zuten lasterketa amaitzerik izan.

Lehendakari Txapelketako azken proba Oñatin jokatu da bihar, zapatua, 10:00etan. Hain zuzen, San Migel txirrindulari sariak erabakiko du zein izan den denboraldiko txirrindulari erregularrena.



Zigor Medina (ezkerrean) izan zen herriko onena. Eskuman, Juez irabazlea.

MENDIA

Pol-Poleko beteranoen irteera domekan


Pol-Pol Mendizale Taldeko beteranoek irteera antolatu dute domekarako, hilak 28. Iparraldeko Irubelaskoa mendira joango dira. Irteera 07:00etan izango da frontoian. Txartelak (10 euro) Pol-Pol tabernan eskuragarri.

KIROLDEGIA

Yoga ikastarorako izenematea zabalik Kirol Zerbitzuan

Kirol Zerbitzuak 14 urteko gorakoei zuzendutako yoga ikastaroa antolatu du. Interesatuak hainbat ordutegiren artean aukeratu ahal izango dute. Prezioa: hileko 16,30 euro bazkideendako eta 22,80 euro nerakoendako. Izenematea Kirol Zerbitzuan, aste barruan, 07:30etik 13:30era.

GIPUZKOAKO TXIRRINDULARI ELKARTEA



ARTXIBOA

Zabaletak Euskadiko Txapelketa eskura dezake bihar Durangon, Montecalvon.

Aitor Zabaleta auto gidariak ez zuen aurkaririk izan Urrakiko Igoeran

Bi proba falta dira, eta Mendiko Euskadiko Txapelketako liderra da bergararra

E.M.
Aitor Zabaleta auto gidariak domekan jokaturako Urrakiko Igoeraren 20. ekitaldia irabazi zuen. Lola BMW-Diamante bar-keta gidatuz, bergararrak 2 minutu, 55 segundo eta 330 milareneko denbora egin zuen. Ibilbidea 6,6 kilometrokoa zen eta 65 gidarik hartu zuten parte. Jokaturako hiru txandetan Zabaleta izan zen nagusi eta lehenbiziko igoe-

ran lortu zuen denbora onena. Bigarren Andres Vilariño donostiarrak (Formula Reynard 3000) sailkatu zen, bergararrarengandik minutu eta erdira. Hirugarren postua Josu Ugarte bizkaitarrendako (PRM) izan zen.
Urrakiko Igoera Mendiko Euskadiko Txapelketarako proba puntuagarria zen. Orain arte lau proba jokatu dira eta Zabaletak hiru irabazi ditu, San Cosme, Gorla eta Urrakiko igoerak, hain

zuzen ere. Las Muñecasen, berriz, bigarren sailkatu zen.

ZAPATUAN DURANGON

Bihar, zapatua, Montecalvoko Igoera jokatu da Durangon, arratsaldean. Emaiza ona lortuz gero, Zabaletak erabakita utz dezake Euskadiko Txapelketa. Horrela izango ez balitz, txapelduna nor den azken proban erabakiko litzateke, Jaizkibelen, aza-roan.

Araneta kadete mailako taldeak Loiolari irabazi zion

E.M.

Ligako lehen partiduan kadete mailako Araneta saskibaloitaldeak aise irabazi zion Loiola B taldeari zapatuan, Labegarairetako kiroldegian (111-25). Iker Barberoren mutilak indartsu hasi dira.

Etxekoek ez zuten inolako arazorik izan donostiarrak mendean hartzeko, eta emaitza ikusita argi dago talde bakarra izan zela kantxan. Loiola B taldeak itxura eskasa azaldu zuen mahoneroen aurka. Bergararren nagusitasuna adierazgarri, taldeko jokalariguztiek lortu zuten punturen bat zapatuko partiduan. Honako jokalarik hauek jarri zituen jokoa: Iker Barberok; Asier Aizpurua (15

puntu), Julen Santamaria (3 puntu), Ander Garcia (10), Jakue Bernardo (16), Eneko Laria (2), Ander Arazkonaga (13), Josu Gantxegi (7), Antxon Hernandez (11), Aitor Fernandez (12) eta Josu Elortza (22 puntu).

Jaurtiketa libreetan %38ko portzentajea lortu zuten etxekoek, biko jaurtiketetan %55ekoa eta, azkenik, hirukoetan %27. Defentsan 11 errebote hartu zituzten eta erasoan 30. Bergarakoak donostiarrak baino dezente altuagoak direla esan behar da.

KADETE MAILAN BI TALDE

Bergara KEK bi talde ditu kadete mailan aurten ere: Araneta (Barberok zuzendutakoa) eta Lacor (Iker Etxeberriak zuzentzen duena).



IÑAKI MARTINEZ

Antxon Hernandez saskira jaurtitzen zapatuko partiduan.



ARTXIBOA

Bergarak partidu bat irabazi eta beste biak berdindu egin ditu orain arte.

Bergarak Hernani hartuko du zapatu arratsaldean Agorrosinen

E.M.

Preferente mailako Bergara KEko futbol taldeak Hernaniren aurka jokatu du bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:30ean. Juanina Garairen taldeak Zarautzen bana egin zuen azken jardunaldian eta bihar etxeko bigarren garaipena lortzen ahaleginduko da, orain dela bi aste Tolosari irabazi eta

gero. Hiru jardunaldi jokatu ondoren, mahoneroak sailkapeneko zortzigarren tokian daude, 5 punturekin. Hernanik, berriz, partidu bat irabazi eta beste biak galdu egin ditu.

BESTE LAU PARTIDU IPINTZAN

Aste bukaeran beste lau partidu jokatu dira Ipintzan: bigarren mailako kadete taldeak Arrasa-

teren aurka jokatu du zapatuan, 10:00etan, eta ondoren nesken taldeak Elgoibar izango du bisitari, 11:30ean. Arratsaldean, berriz, Bergarako eta Zarauzko neskak izango dira aurrez aurre, futbol 8 delakoan, 18:30ean.

Jardunaldiarekin bukatzeko, domekan Bergara eta Allerru lehen mailako gazteen arteko partidua izango da, 11:30ean.

Ganbara

TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75



IRRINTZI
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

Pintura-lanak orokorrean

Pintura industrial

Zoru arinak: sintasolak, moketak...

610 25 99 82

610 25 40 37

943 76 24 11

Amillaga 1, 10 pabilioa.
20570 BERGARA

Barreterapia ikastaroa urrian izango da, zapatu goizetan, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea

Barrearen ezaugarri sendatzaileez jabetzeko ikastaroa antolatu du Jardunek

MONIKA BELASTEGI

La Risa Inteligente izeneko taldeak emango du barreterapia ikastaroa. Lau saio izango dira, urriko zapatu goizetan, eta helburua da barrearen alderdi onak ezagutu eta haien onuradun egitea. Izan ere, osasun fisiko zein psikikoan mirariak egin ditzake.

Barrearen onurak jorrazteko barreterapia ikastaroa antolatu du Jardun euskara elkarteak. Barreterapiaren oinarriko printzipioa da gorputzak sortzen dituen hainbat hormonen produkzioa suspertzea; bereziki sistema immunitarioa sendotzen duten hormonen produkzioa. Horrez gainera, blokeo kultural eta sozial ezkorak gainditzea du helburu.

La Risa Inteligente izeneko taldeak egingo du barreterapia ikastaroa, eta eurek esan dutenez, barreak pozik sentiarazten gaitu eta bizitzako egoera zaili konfiantzaz aurre egiten laguntzen digu. Barrea, gainera, zenbat eta naturalagoa eta egiazkoagoa izari, hobeto.

IKASTAROAK ATAL TEORIKOA ETA PRAKTIKOA IZANGO DITU

La Risa Inteligente taldearen helburua da ikastaroan izena ematen dutenei barre zintzoa sorraztea, eta horretarako, animazio dinamikak, musika, ekintzak,



Barre egitea oso onuragarria da; barreak osasun fisiko eta psikologiko hobea izaten laguntzen digu.

gorputz espresioak, jolasak... erabiliko dituzte.

Ikastaroak eskola teoriko eta praktikoak ditu. Atal teorikoari dagokionez, honako gaiak lan-

duko dituzte, besteak beste: barrearen kontzeptu fisiologikoak eta osasunean eta bizi kalitatean barreak duen eragina. Atal praktikoari dagokionez, berriz, barre

egiteko jolasak eta jarduerak egingo dituzte, baita zentzu ezberdinak piztu eta zentzazio berriak sentitzeko ariketa eta dinamikak ere.

BARREA: EZAUGARRI SENDATZAILERAK ASKO DITUEN TERAPIA

Barreak ezaugarri sendatzaile asko dituela azaldu dute La Risa Inteligente taldekoek. Onura asko ditu, hala nola: birrikak handitzen ditu, odolaren zirkulazioa hobetzen du, kortisola txikitzen du, giharrak erlaxatzen ditu, egoera emozionala orekatzen du, azala gaztetzen du, beldurrak gaintzen laguntzen du, autoestimua handitzen du, bihotzkoaren kontrakoa da, hilerokoak eta menopausia hobetzen ditu, argaldu egiten du, estresa eta depresioaren kontrakoa da...

Hori horrela izanik, barreterapia ikastaroa jende guztiari dago zuzenduta, adin mugarik gabe. Gainera, taldean egiteko ikastaroa da, eta musika eta jolasa erabiliko dituzte parte-hartzaileen barre zintzo eta benetakoena eragiteko.

ARRIZURIAGA JAUREGIAN URRIKO ZAPATU GOIZETAN

Ikastaroa urrian izango da, zapatu goizetan, Arrizuriaga jauregian: urriaren 4an, 11n, 18an eta 25ean izango da, hain zuzen ere, 10:00etatik 13:00etara.

Izena emateko Jardun elkartetik pasa daiteke, datuak kulturara jardun@topagunea.com helbidera bidali edo telefono hauetara deitu: 943 76 36 61 edo 943 76 08 19. Prezioari dagokionez, bazkideek 40 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 45 euro.


'Kutsidazu bidea, Ixabel' urriaren 3an Udal Pilotalekuan

MONIKA BELASTEGI

Gorringo taldeak *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlanaren egingo du urriaren 3an, egubakoitza, 22:30ean, Udal Pilotalekuan. Joxean Sagastizabalen eleberri ezagunaren egokitzapena da.

Joxean Sagastizabalen eleberriak bezala, Gorringo taldeak liburuaren gainean egindako egokitzapena arrakasta handia izaten ari da Euskal Herrian barrena.

Liburuaren egokitzapena Nagore Aranburuk egin du eta liburuaren funtsari eutsi egin diote antzerkirako moldatzean. Liburuak irakurri duenak Juan Martin, Ixabel, Morgan, amona... ikusiko ditu Gorringoren antzezlanean. Juan Martin euskaldun berria da *Kutsidazu bidea, Ixabel* laneko protagonista, eta bere bitartez ulertzen da istorioa. Juan



Juan Martin euskaldun berriaren gorabeherak kontatuko dizkigute.

Martin Alkizako euskaltegian dago, eta Harrialdeko Aranguren baserrira joango da euskara hobetzeko. Baina han entzuten duen euskara berak ikasitakoaren ezberdina da. Hasieran ez du

tutik ulertuko eta entzuten duena swahilia irudituko zaio.

Aktoreak Ixabel Agirresarobe, Iñaki Agirrezabal, Mikel Sarriegi, Ainara Tolosa, Egoitz Lasa eta Anjel Alkain dira.

LABUR

Moises Azpiazu dantza taldeak gazte eta nagusiendako ikastaroa antolatu du

Ikasturte berriarekin bat eginez, Moises Azpiazu dantza taldeak ikastaro berriak antolatu ditu. Hain zuzen ere, ikastarook bost eta 15 urte arteko neska-mutikoendako eta 15 urtetik gorako gazteendako izango dira.

Bost eta 15 urte arteko neska-mutikoendako ikastaroa bi egun astean izango da: astelehenean, martitzenetan eta eguaztenez, martitzenetan aukeratzeko. 17:00etatik 18:00etara izango da, eta prezioa hileko 20 eurokoa da.

Hamabost urtetik gorako kasuan, berriz, zapatu goizetan izango da ikastaroa, 11:00etatik 12:00etara, eta prezioa hileko 15 eurokoa da. Izena emateko edo informazio zabalagoa jasotzeko 676 52 03 68 telefonora zembakira deitu (Irantzu).

Antzerkia eta rock kontzertuak egongo dira gaur eta bihar gaztetxean

Gaur, egubakoitza, antzerkia egongo da 22:30ean. Gilkitxaro antzerki taldeak *Elevator* antzerki lana egingo du. Gilkitxaro Deustutik datorren taldea da, eta *Elevator* taldearen azkeneko lana. Hiru pertsonaiak osatutako istorioa kontatuko digute. Hiru hantzi bateko igogailu publikoa batean gorako bidea eten egingo da. Pertsonaia bakoitzak bere erara ikusiko ditu gauzak, baina mundu bakar bat dabil gora eta behera.

Eta bihar, zapatua, kontzertua egongo da 22:30ean. Bi taldek hartuko dute parte: Urretxuko Spezial guest eta Ondarruko Keike taldeek, hain zuzen ere.

E, TXO!

GUREGAIK/ LANA

Lana topatzeko badaude teknikak

AINZANE IRIZAR

Ikasketak amaitu eta lana topatzen zabilaz? Ez dakizula nondik hasi? Hainbat aukera dituzu; horietako bat da Interneteko webgune bateko aholkuak jarraitzea: Lanbideren webgunekoak, hain zuzen.

Lanbideen gaineko informazio ugari topatuko duzue www.lanbide.net webgunean. Esate baterako, lana topatzeko teknikak eta erremintak goitik behera azaltzen ditu. Curriculumak eta gutunak zelan idatzi, elkarrizketarako zelan prestatu, idatzizko proba egiterakoan zer hartu behar den kontuan, zelan topatu praktikak egiteko aukerak.

CURRICULUMA, LEHEN URRATSA

Norberaren burua aurkezteko izaten da curriculuma. Ia denok dakigu zein datu jarri behar izaten den curriculum batean. Lanbideren webgunean, baina, hori baino gehiago topatuko dugu: curriculumak irakurri behar duenaren azalean jarriko gaituzte, curriculumaren txukuntasunaren, luzeraren eta aurkezpenaren gaineko azalpenak topatuko ditugu. Curriculumean zer ez dugun jarri behar ere azalduko digute. Eta berdin, gutun, elkarrizketa eta idatzizko proben gainean. Horrez gainera, prestakuntza zentroen, lan eskaintzen eta praktiken gaineko informazioa topatuko dugu. Aholkularitza zerbitzua ere badute.



Lanbideren webgunean hainbat aholku topatuko ditugu.

ARTXIBOA

LOTSABARIK/ Harri Albisua

“Ligatzeko, jendeak edan egiten du”

AINZANE IRIZAR

Realzale amorratu da Harri; bere zaletasun nagusienetakoa da Realaren partidua ikustera joatea. Ikaslea da eta ia bukatu zaizkio oporrak: izen konplexu samarreko modulu bat egiten hastekoa da.

- Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?
Pasatu berri diren oporretarako igerilekuak zabalik lagako nituzkeen. Eta gazteondako ekin-tza gehiago antolatuko nituzke.
- Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?
Garezur baten marrazkia.
- Telebistako saio gorrotaga-


rriena? Eta gustukoena?

Operación Triunfo ez zitzaidan gustatzen. Gustukoena, berriz, *Crónicas marcianas*.

- Pertsonaia higuinarriena? Eta gustukoena?
Jose Mari Jiménez txirindularia ez zitzaidan gustatzen; gustukoena, berriz, Olano.
- Zerk amorratzen zaitu?
Jendea nire aurrean ahopeka ibiltzeak, nik entzun ez dezadan.
- Zer estimatzen duzu besteengan?
Pertsona ona izatea.
- Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?
Osasunari.
- Zure bertute bat? Eta akats bat?


Nik uste dut eskuzabala naila eta lagunei laguntzen dieldala. Akatsa, berriz, berba larregi egiten dudala; horrek, askotan, arazoak ekartzen ditu.

- Zelan ligatzen duzue gazteok?
Nik uste dut jendeak edan egiten duela, lotsa kentzeko.
- Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?
Kirolzalea, musikazalea eta ez oso altua, nire antzekoa.
- Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?
Neskalaguna edukiz gero, harekin, eta bestela lagunekin. Islandiara joango nintzateke.
- Etorkizunerako amets bat?
Ikasitakoarekin lotutako lana topatzea eta ondo irabaztea.



ADINA: 17 urte • **IKASKETAK:** Goi mailako modulua • **ZALETASUNAK:** Bizikletan ibiltzea eta Realaren partiduetara joatea • **LIBURU BAT:** ‘Diario de un skin’, Antonio Salas-ena • **FILM BAT:** ‘El bueno, el feo y el malo’ • **MUSIKA TALDEA:** The Oppressed • **KIROL TALDEA:** Reala

TIRABIRAKA/ Peru Azkarate



ZAHARRENETXETIK

Erretiratuen egoitzaren historia jasotzen duen liburua laster kalean

EDU MENDIBIL

Xabier Ibartzabal mediku donostiarrak Bergarako erretiratuen elkartearen historia jaso du. *Evolución del hogar del jubilado en el contexto social de Bergara. 1972-2002* behin-behineko titulua duen liburua urriaren azkenetan aurkeztuko dute.

Xabier Ibartzabalek idatzitako liburuan 1970eko hamarkadatik hona erretiratuen elkartek izan duen ibilbidea jasotzen da, 1972an Aitonak elkarte sortu zutenetik gaur egunera arte, hain zuzen ere. San Joxepeko zuzendaritzak Xabier Ibartzabal medikuari agindu zion lan hori, eta dagoeneko esku artean daukate lan horren emaitza. Azken ukituak egin eta gero, inprentara eramango dute liburua datozen egunotan. Xabier Ibartzabal barne medikuntzako espezialista da, eta Donostiako Matia Fundazioan dihardu lanean. Bioetikako masterra dauka, eta San Joxepekoek ondo ezagutzen dute, hitzaldiren bat egiteko gonbidatu izan dute-eta.

Xabier Ibartzabalek zera adierazi zigun: "Informazioa eskuratzeko orduan, artxiboetara eta ahozko testimonioetara jo dut. Era berean, azken 30 urteotako hainbat argitalpen ere baliagarriak izan zaizkit. Alkartu Naik Aitonak elkarte sortu zuen, eta ordutik honako ibilbidea jasoko dugu liburuan. Era berean, San Joxepe gaur egun egiten duen lanaren berri ere emango dugu. Oso elkarte bizia da Bergarakoa, urtean barrena ekitaldi asko egiten ditu-eta. Lan horren guztiorren testigantza jaso nahi izan dugu, jendeak erretiratuen zereginaren berri izan dezan. Bestalde, testuarekin batera liburua argazki dezente ere izango ditu".

1972an Aitonak sortu zenetik hona erretiratuen elkarteak izan duen ibilbidea jasotzen da

Xabier Ibartzabalek idatzitako liburua 250 orrialde eta 50 argazki inguru ditu; salgai jarriko dute

Liburuak 250 orrialde izango ditu, eta tartean 50 argazki inguru azalduko dira. San Joxepeko zuzendaritzaren arabera, urria-

ren 31n egingo da liburuaren aurkezpena ziuurrenik, eguna guztiz zehazteke dagoen arren. Kultur Hamabostaldia urriaren 25ean

bukatuko da, eta jarraian aurkeztu nahi dute liburua. Hasierabaten liburuaren 1.000 ale kale-

dute. Oraindik ez dute liburuaren salneurria zehaztu. San Joxepekoen asmoa ahalik eta herritar gehiagorengana heltzea da.



Deutsche Post World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE

Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez. Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresetan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena DHL markapean bildu dira are hobea den osoko zerbitzua eskaintzeko. Orain, eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitetz gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU **DHL**

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Igande honetan festa berezi bat ospatuko duten zein menditan dago San Martinen gurutza?

GALDEDEBALDE

1.

Zein taldek emango du Jardunek antolatutako barreteria ikastaroa?

- A/ La risa inteligente.
- B/ La risa feliz.
- C/ La monda lironda.

2.

Zeinek idatzi du erretiratuen elkartearen historia jasotzen duen liburua?

- A/ Tomasa Zabaletak.
- B/ Raquel Barcenillak.
- C/ Xabier Ibartzabalek.

3.

Zein taldetan dabil San Martin saria irabazi zuen Carlos Juez txirrindularia?

- A/ Debabarrena.
- B/ Ruta Europa.
- C/ Ulma Cegasa.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ALAZNE MATEOSendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Alazne! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Errekalde jauregia / Galde debalde: 1-B, 2-B, 3-A.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Mendisol ekilore-olioa

Litro bat.

0,73 €

121 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

BERGARAROSPETSUAK

Martin Agirre Arrijola (eta II)

KOLDO PEREIRA

Mexikon Filosofia eta Teologia irakasten hasi zen 1593an, baina bere ametsa Japoniara, sinesgabeen lurraldera, joatea zen. 1594an Manilara abiatu zen, betiko moduan frai Francisco Blancorekin. Azkenik, 1596ko ekainean abiatu ziren Japoniara. Nagasakira heldu ziren lehenbizi. Legenardunak zaintzeaz gain, eskola bat ireki eta japonieraren gramatika bat idatzi zuen. Gero Osakara joan zen, eta ermita txiki bat eta hiru katekista japoniar baino ez zituen egoitza bakun baten ardura eman zioten. 1596ko abenduaren 8an, guardiek frantziskotarren komentuak atxilotu zituzten. Macao eta Osakara eraman zituzten gurdiz. Isekak eta irainak egin zizkieten eta ezkerreko belarriko gingila moztu zieten. 27 lagun ziren, espainiarrak eta japoniarrak. Frantziskotarrak eta jesuitak zeuden, eta sekular batzuk ere bai. Nagasakin martirio gurutzeak zeuzkaten zain. Azken *Tedeuma Laudamusa* kantatu zuten 1597ko otsailaren 5ean. Martinek zera esan zuen: martirioa Jainkoaren dohaina zela, eta martirioan hildakoen odola kristau-hazia.

Martirioan hildakoen odola kristau-hazia zela esan zien Martinek bere lagunei Nagasakin

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
943 76 00 55

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

TELEIXA
BILTEGIAK


Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiözu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA
Iñigo Agirre
Irailaren 27an, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Silvia Sebastian
Irailaren 22an, 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maitane Muruamendiaraz
30ean, 6 urte. Zorionak!
Etxekoak; bereziki, Julen.



BERGARA
Eider Velez de Mendizabal
25an, 24 urte. Zorionak!
Iker, Nerea eta Alaiz.



BERGARA
Naiara Gallastegi
Irailaren 27an 22 urte.
Zorionak, amonaxo!
Arrasatekoak.



ANTZUOLA
Miriam Morais, Txami
23an, 17 urte. Zorionak
bi bider! Koadrilakoak.



BERGARA
Naroa Arenaza
Irailaren 20an, 3urte.
Zorionak! Mireia, Oskar
eta Edu.



BERGARA
Amaia Mendibil
Irailaren 24an, 16 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mireia Arteaga
Irailaren 25ean, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mireia Osuna
Irailaren 30an, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Garazi Marzo
Irailaren 26an, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ainhoa Ugarte
Urriaren 1ean, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara:
Berrigara, Irizar jauregia,
Barenkalea 33
Antzuola:
Udal Liburutegia,
astelehenetan
17:00etatik 19:00etara
Elgeta:
Erosle-Baltxongua



BERGARA
Onintze Rementeria
Irailaren 29an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Bittor Giral
Irailaren 29an, 3 urte.
Zorionak! Mikel, Julene
eta etxekoak.



ELGETA
Ainara Belamendia
Irailaren 29an, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10

UREDERRA
ITURGINTZA


Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.


Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



JAUJA
KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95



POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara

ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19
ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46
ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95
BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77
GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65.
SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69
TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

DIETISTAK

- ALBERDI Mireia** Olaaran etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA. 943 76 60 45 / 646 443 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

HORTZ-PROTESIKOAK

- MARTINEZ Begoña** Bidekurutzeta 10. 943 76 39 21

MASAILARIAK

- AZPEITIA Irupe** Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43
CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

- ALTUBE Edurne** Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84
AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80
URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

- SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko irailaren 26a / 171. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02


UEMA Antzuolarako plana egiten hasi da

AINTZANE IRIZAR

Apirileko osoko bilkuran erabaki zuen udalbatzak Antzuolako Udala UEMAn sartzea, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean. Eta oraingo astean bertan hasi dira lanean UEMako teknikariak: hain zuzen, Antzuolarako euskara plana jarriko dute abian.

Gaur egun 50etik gora udalerririk osatzen dute Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, tartean Antzuola. UEMaren helburuak dira udalerririk horietan egiten den bizimodu soziala euskaraz egin dadin bideak eta baliabideak jartzea, euskara nagusi izango den lurruna sortzea eta udalerririk horien garapen sozioekonomiko eta soziokulturala bultzatzea.

Helburu horiek lortzeko lan-kidetzan dihardute Udaleko eta UEMako teknikariak, eta oraingo astean bertan ekin diote euskara plana diseinatzeke lanari.



Udalak euskaraz funtziona dezan plan bat egingo du UEMak.

MERKATARITZA KANPAINA

Udalarendako euskara plana egiteaz gain, UEMak herriari begira ere egingo du lan. Horrela, merkataritza kanpaina abian jartzeko asmoa dauka. Kanpaina horren bitartez, herriko merkataririk guztiei doako euskara zerbitzua eskainiko diete: besteak beste, itzulpen zerbitzua eta dendako kartelak, ordutegia eta oharrak euskaraz jartzeko laguntza. Kanpaina horren gaineko azalpenak emateko herriko denda guztietara

joko dute planaren arduradunek datozen egunotan.

UEMAk, dena dela, bestelako zerbitzuak ere eskaintzen ditu: esaterako, euskarazko kultura zerbitzua eskaintzen du, Kultura Elejira izeneko egitasmoaren bitartez. Herri txikietako kultura sorkuntza handitzea da egitasmo horren helburua.

Bestalde, aipatzekoa da transmisio kanpaina abian jartzekoa dela UEMA, ume jaioberrien gurasoei zuzenduta.

HIRIGINTZA

Aukeratu dute alde zaharrerako lurzorua

AINTZANE IRIZAR


Buztinzuri kalean lurzoru berria jarri behar zutela eta, lurzoru moten erakusketa jarri zuten irail hasieran udaletxean. Helburua zen herritarren iritzia ezagutzea. Jende ugari ibili da aukeran zeuden lurzoru motak ikusten, baina ez dira horrenbeste izan botoa eman dutenak.

Hala, Udaleko arduradunek dagoeneko hartu dute erabakia: bozketan bigarren postuan geratu zen aukera, hain zuzen ere.

Espaloia granito itxurakoa izango da, harri artifizialekoa, hondar kolorekoa. Bidea, berriz, hormigoiz zaharkituaren itxura-

koa izango da. Zenefak, azkenik, granito itxurakoak izango dira, gris kolorekoak. Zenefak ez dira elementu estetiko hutsak izango; alde batetik, ikusmeneko arazoak dituztenendako erreferentzia izango dira, espaloia eta bidea bereizteko, esaterako. Bestetik, aparkalekuetako marren funtzioa beteko dute. Berehala hasiko dira lurzorua jartzen. Esan beharra dago antzerako lurzorua dagoela Bergarako Munibe plazan eta Iparragirre pasealekuan.

Denborarekin, Antzuolako alde zaharreko kale guztietan jarriko dute lurzoru bera. Gainera, noranzko bakarra izango du laster Buztinzurik.



Imitaziozkoa, baina kalitate oneko materiala erabiliko dute lurzorua berritzeko.

AITZ-GARBI



taberna
jatetxea

Pintxoak eta
kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

LABUR

Pintura ikastaroan ibilitakoen margolanak ikusgai jarriko dituzte asteburuan

Urtero antolatzen du Udalak pintura ikastaroa. Iazko ikasturtean ikastaro horretan ibili zirenek egindako margolanak ikusgai egongo dira asteburu osoan. Antton Arrillaga pintorea izan zuten ikastaroko irakaslea, eta aurtengo ikasturtean ere Antton bera dabil irakasle. Olanan etxeko erakusketa aretoan bihar, zapatua, eta etzi, domeka, egongo da zabalik erakusketa hori; goizez, 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldean, 18:30etik 20:00etara. Ez dituzte ikasturtean barrena egindako margolan guztiak ikusgai jarriko; 15 edo 20 margolan inguru jarriko dituzte.

AZPIEGITURAK

Beasain-Durango autobiarri hainbat alegazio egin dizkiote

AINZANE IRIZAR

Irail hasieratik ikusgai dago Beasain-Durango autobiarri Zumarraga eta Bergara arteko zatiaren maketa udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Proiektua kontsultatzeko aukera dago, eta dagoeneko 11 herritarrek egin dizkiote alegazioak proiektu horri.

Hilabete honetan bertan bukatuko da proiektuari alegazioak egiteko epea. Maketa eta proiektua ikusgai egon diren bitartean, Udaleko Hirigintza Saileko arduradunek aholkularitza zerbitzua eskaini diete alegazioak aurkeztu nahi zituzten herritarrei.

Epea bukatzera doan honetan, hamaika herritarrek aurkeztu dituzte alegazioak. Era berean, herriko enpresa nagusiek alegazio bateratua aurkeztu diote Diputazioari. Azkenik, Udalak berak ere alegazio sorta bat prestatu du eta Diputaziora bidali.

DESKARGAKO LOTUNEA

Udalak aurkeztutako artean, aipatzekoa da Ipurrietekako lotu-



Hilabete osoan egon da ikusgai Zumarraga eta Bergara arteko zatiaren maketa.

neari dagokiona. Proiektuaren arabera, lotune horrekin, Zumarraga alderako norabidea bakarrik har daiteke; hau da, ezin izango da Bergara aldera sartu. Azken aukera hori ere ematea eskatu du Udalak.

Bestalde, ingurumen-inpaktuarekin arduratuta dago Antzuolako Udala, paisaia eta base-rietan autobiarriak izan dezakeen eraginarengatik. Autobia egiteko epeen gaineko alegazio bat ere aurkeztu dute.

HERRITARREN HITZA / Jose Mari Ugalde · Erretiratua

Agur, irakurleok

Uzta aldi luze samarra izan ondoren, nire iritzi apurrak adierazi nahi nizkizueke.

Badakit inor ez litzatekeela ohartuko ezer falta denik, irakurleok ez baitzuen gauza berririk aurkituko nire iritzi ez beti egokienak.

Orain, Erretiratuen Elkarteak Batzordea berritu egin da eta oso atsegin zait aldaketa horrekin batzordeak udaletxearekin izan behar dituen harremanak bide onetik doazela jakitea. Egoitza zaharra kendu dute, beraz, berria hurbiltzen doala esan daiteke. Baita aspalditik ditugun beharrak ere. Eguneko zentroa eta etxebizitza babestuak sortzeko bideari eutsi behar diogu eta hori bultzatu behar



“Kirol hizkuntzan esaten den moduan, testigua pasatzera noa”

dugu, denok bizkarra arrimatuz.

Gure eskualdeko gaietan ere egon da halako utzialdi bat eta iritziak bateratu ezin bat, baina, zorionez, badirudi antzu aldi hori bukatu dela; hasiak dira sukaldaritza lehiaketak eta abar mugitzen. Hain zuzen ere, patatak errioxar erara prestatzeko lehiaketa antolatu zuten, eta hor non antzuolarrak sukaldari on bezain alaiak diren. Mari Kruzek eta Juanitak irabazi zuten. Bejondeizuela eta zorionak, bihotz-bihotzez.

Eta, kirol hizkuntzan esaten den bezala, testigua pasatzera noa eta lasai egoteko adierazi nahi dizuet;

izan ere, hurrengo eskua nirea baino egokiagoa eta finagoa izango da. Agur eta betira arte.

LABUR

Eguaztenean, urriak 3, bukatuko da Ikerketa Bekarako aurkezteko epea

Duela bi asteko KONTUOLAn azaldu genizuen urriaren 30era arte zegoela Antzuola Herria Ikerketa Bekarako eskaerak aurkezteko epea. Akats bat izan zen eta urriaren 3an, eguaztena, bukatuko da epe hori, eta ez hilaren 30ean.

Aurtengo beka Antzuolako toponimia jaso eta aztertzeke izango da. Horretarako 12 hilabete izango ditu bekadunak, eta 12.020 euroko laguntza izango du. Udaleko Euskara Zerbitzuaren ardurapean egingo du lana, eta Euskaltzaindiaren ordezkarri baten laguntza izango du.

Eskolako gaztetxoendako patata tortilla lehiaketa antolatu dute urriaren 4rako

Datorren asteko zapatarako, urriak 4, Herri Ikastetxeko neska-mutikoendako patata tortilla lehiaketa antolatu du Udalak. Herriko Plazan jokatu dute lehiaketa, 16:30ean. Parte hartzeko udaletxean eman behar da izena, urriaren 1a baino lehen.

Bi mailatan antolatu dute lehiaketa: A mailan, bosgarren eta seigarren mailako neska-mutikoei hartuko dute parte, eta B mailan, DBHko lehen eta bigarren mailakoek. Talde bakoitzak, gutxienez, lau lagun izan beharko ditu.

Gorringo taldearen ‘Kutsidazu bidea, Ixabel’ antzezlanaren urriaren 25ean

Orain dela hilabete batzuk estreinatu zutenetik hona sekulako arrakasta izan du antzezlan horrek, eta Antzuolan ere izango dugu ikusteko aukera. Urriaren 25ean izango da hori, Udal Pilotalekuan. Hortaz, oraindik ikusi ez duzuenok ez duzue kanpora joan beharrik izango antzezlan ikusteko.

Joxean Sagastizabalek idatzitako liburuan oinarrituta dago antzezlan; euskaldun berri batek baserri baten izandako bizipenak kontatzen ditu, betiere, umorez.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Irailak 27

16:30: Antzuola-Urki (Gazteak)

Irailak 28

11:30: Antzuola-Elgoibar (Neskak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Eibartarrak 2 Antzuola 5 (Kadeteak)

Ikasberri 3 Antzuola 1 (Gazteak)

Antzuola 5 Arrate 0 (Erregionalak)

Arrolak mendi bizikleta irteera egingo du

Urriaren 12an egingo dute irteera hori Nafarroan; Beratik Doneztebera joango dira mendi bizikletaz. 22 kilometro ditu ibilbide horrek. Bizikletan baino, oinez ibiltzea nahiago dutenek, bestalde, ibilaldi laburrago bat egiteko aukera izango dute inguru hartan. Garai baten trenbidea izandako bidetik egingo dute ibilaldi hori, Bidasoa ibaiaren ertzetik; izokinak ibaian gora ikusteko aukera ere egongo da. Martitzenean, hilak 30, eman dezakezue izena, 19:00etatik 20:00etara.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

Juan Cruz

ARGAZKIAK
Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak
Estudioko argazkiak

BITXITEGIA
Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko irailaren 26a / 155. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegí • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Uraren, argiaren, komunikazioaren eta bideen gainean baserritarrek zer behar dituzten jakin nahi du Udalak.

Baserritarren beharren berri izateko bilera

IRATI AGIRREAZALDEGI

Dituzten beharrak aztertzeko asmoz, Udaleko arduradunak baserritarrek elkartu dira asteon. Argian, urean, bideetan, komunikazioan zein beste gai batzuetan gabeziak dauzkate baserritarrek, eta horiek idatziz jaso nahi dira, behar horiei aurre egiteko

Udalak azterketa bat egin nahi du, datozen lau urteei begira baserritarrek izan ditzaketan beharrak zein diren jakiteko.

Horretarako, Elgetan dauden 70 baserritara deialdia egin zuen bilera baten parte har zezaten. Joan den astelehenean izan zen bilera eta guztira 32 baserritako ordezkariak elkartu ziren udal-tertxeko osoko bilkuren aretoan. Batzarrean, baserritarren beharren azterketaz gain, beste gai batzuk ere landu zituzten.

Baserritarrei inprimaki bana eman zieten, bertan idatziz dituzten beharrak azaltzeko. Paperak bete ostean, urriaren 6a baino lehen udaletxean bertan entregatu beharko dituzte baserritarrek.

Argindarrari, urari (edatekoa, ur beltzak eta euri-urak), bideei (garbiketa eta zainketa), komunikazioari (telefonoa eta zuntz optikoa) zein beste hainbat gauzari buruzko beharrak izan ditzakete baserritarrek.

Izan ere, herriko erdigunetik aparte daudenez, ez dituzte zerbitzuak egoerarik onenean jasotzen eta kasu batzuetan jaso ere ez dituzte egiten.

BALORAZIOA

Eskari guztiak kontuan hartuta, behar bakoitzari aurre egiteko diru kopurua zenbatekoa den kalkulatu dute, eta lehentasunak finkatu dituzte. Ondoren, Udaleko aurrekontuen arabera erabakiko dute noiz erantzun baserritarren eskariei.

Baserritarrek urriaren 6a baino lehen eramane behar dituzte inprimakiak udaletxera

URIARTE AUZOKO URA

Bileran beste zenbait gai ere landu zituzten; horien artean, Uriarte auzora ura eramateko proiektuaren egoera.

Bertara ur gutxi iristen denez, hori saihesteko hodi berriak jarri nahi dituzte. Horretarako, urriaren amaierarako aurrekontuak eskatuko dituzte eta azaroaren 30erako erabakita egongo da lanak zein enpresak egingo dituen. Lehenengo fasean herri-rik Agarre baserrira arteko zatian ipiniko dituzte hodiak. Obrek 90.000 euroko kostua izango dute eta proiektu osoa 282.000 euro kostako da. Mendi Nekazaritzaren, Udalaren eta baserritarren artean ordainduko dituzte lanak, eta Ur Partzuergoarekin harremanetan jarri dira, hura ordaintzekaren zati batez arduratzeko.

Bestalde, batzarrean esan zuten, baserrietarako bideak garbitzen hasiak dira eta urriaren 15era bitartean jardungo dute lanean. Horrez gain, interesatuei jakinarazi zieten datorren urriaren 1etik aurrera baserri turismoari buruzko ikastaroa izango dela nahi duten baserritar guztiendako.

ESKULANAK

Urriari hasiko dira eskulan ikastaroak

I.A.

Urriari hasi eta ekainera bitartean eskulan ikastaroak izango dira Elgetan. Astean bi orduz elkartu, eta zurarekin, beirarekin, ogi-mamiarekin... eskulanak egiteko aukera izango da. Bi talde egongo dira horretarako: arratsalde eta gauz. Interesatuak Maria Elena Eztenagarengana jo beharko dute.

ERAKUSKETA

Etxeko gauzak berreskuratzetik hasi eta gaur egun hainbat material erabiliz altzariak, apaingarriak eta bestelako tresnak egiten dituztela azaldu digu ikastaroaren arduradunak. Elkartzen direnek denbora pasatzeko modu polita izango dute.

Gainera, ikasturte amaieran egindako lanekin erakusketa antolatuko dute.



Elgetako jaietan erakusketa egin zuten joan den ikasturteko lanekin.

LABUR

Pediatraren ordutegia oraingoz ez duela luzatuko jakinarazi du Osakidetza

Udalak pediatraren ordutegia luzatzeko eskaria egin zion Osakidetza. Izan ere, astean bi orduz baino ez da etortzen umeen serdagilela Elgetara. Osakidetza, ordea, ordutegia bere horretan utziko duela jakinarazi du. Emandako arrazoia zera da: bi pediatra daudela Elgeta, Antzuola eta Bergararako eta orduen banaketa haur kopuruaren arabera egin dutela. Herritarrak kezkatuta daudenez, hurrengo osasun batzordean berriz landuko dute gaia.

Oraindik zabalik dago Udalak antolatutako gimnasia ikastaroetan izena emateko epea

Joan den astelehenean hasi zituen yoga saioak zazpi laguneko talde batek. Eskolak hemendik aurrera astelehenean eta asteazkenean izango dira, 19:15etik 20:45era bitartean, Herri Eskolako psikomotritzitate gelan. Arduradunek esan digutenez, oraindik zabalik dago izena emateko epea. Bestalde, datorren urriaren 2an hasiko dira gimnasia ikastaroak, eta interesatuak Bola-Tokian edo Udal Kirol Zerbitzuan eman dezakete izena.

Sagardo Egunean 180 litro sagardo edan ziren plazan ipinitako hiru kupeletatik

IRATIAGIRREAZALDEGI

Kupela sagardoaren hotela dela dio kantuak. Egun batez izan bazen ere, Elgetak eman zion ostatu sagardoari zapatuan.

Jende asko batu zen Tortilla Lehiaketaren aitzakian plaza, eta 19 taldetako partaideek, trikiti doinua lagun, fin jardun zuten sukaldean. Batzuk besteak baino finago. Amaieran Jose Antoniok eta Belenek eraman zuten lehen saria. Originalena ilegalenekoan izan zen, baina epaimahaia ez zuen legez kanpo laga. Saillapenean azkena Mal de Ojo taldea geratu zen, kantuan hobeak diren seinale.


Tortillari buelta emateko malabararik egin zuenik izan bazen ere, benetako malabaristak gero etorri ziren. Katalunia-ko antzerki taldeak aho zabalik laga zituen inguratu ziren guztiak, umeak eta helduak.

Antzerkiaren ondoren afari-tara elkartu zirenek sagardotegiko menua izan zuten, eta, sagardotegian legez, modu espontaneoan jardun zuen bertsoariarik ez zen falta izan.

Eta Sagardo Eguna amaitzeko, gaztetxera dantzara. Sagardoaren eta janaren astuna arintzeko rumba eta trikiti doinuen erritmora dantzan amaitu zuten elgetarrek gaua.



Lehiaketarako tortilla, Joixon bertanekoena biribil-biribila.



Epaimahaioak lanean eta herritarrek begira; nolakoak egongo ote dira?



Trago eta trago, botilatik eta kupeletik 200 litro baino gehiago.

Tortilla Lehiaketa

TALDEA	PUNTUAK
1. Jose Antonio	33
2. Kalitatea	31
3. Joixon bertan	30
4. Aralar	28
5. Karni eta Poto	27
6. Josu eta Iñigo	23
Gaztetxia	23
7. Tortillerak	22
8. Maya	21
9. Kuadrila	19
10. To! Tortilla	18
11. A Taldea	17
Equenekuak	17
12. Tortilla Ilegala	16
Bikoitza	16
13. Hiru eta bat	15
90210	15
Pataterak	15
14. Mal de Ojo	14



Irabazlea Jose Antonioren tortilla, hura bai sukaldari abila.



Egunaren amaiera aldera malabaristak. Boni eta Ramirez familia: horiek bai artistak!



BOLINAGA
METALAK

SALBADOR 7
ELGETA 20690
GIPUZKOA
TEL: 943 76 80 64
FAX: 943 76 83 01

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

SAIOA ARANZABAL
MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

Kiromasajea •
Reflexologia •
Hidromasajea •
Kirol masajea •



• Solariuma
• Drenaje linfatikoa
• Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

ERRETRATU ZAHARRA

BERGARA

Lola taldea
futbitoko
txapeldun, 1989

Labegaraietako Futbito Txapelketa hasiko da hurrengo aste bukaeran. Aurtengoa 17. ekitaldia izango da eta 32 taldek jardungo dute lehian. Hemen-dik udaberria bitartean partiduak izango dira aste bukaerero Labegaraietako kiroldegian. Esan bezala, lehen jardunaldia datorren aste bukaeran jokatu da.

Alboko argazkia txapelketaren bigarren ekitaldikoa duzue, 1988-89 denboraldikoa, hain zuzen ere. Urte hartan Lola taldea izan zen txapelduna. Ligako eta kopako finalak irabazi zituzten Lolako jokalariek. Hara hor zeintzuk diren argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Ricardo Iturbe, Jose Luis Agirrezabal, Felix Salamanca, Guillermo Miner eta Santi Fernandez.

Makurtuta: Fernando Kalboetxeaga, Asier Altuna, Karlos Lasa eta Alfonso Berraondo.

Argazkia: BKE artxiboa.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

BERGARA


Benta Berri
baserria

Ekialdeko saihebidia ireki zuten orain dela urtebete inguru. Labegaraieta eta Bergaratik Antzuolara irteera lotzen dituen errepideak zirkulazio handia jasotzen du egunero.

Horrelakoetan gertatzen den moduan, errepide hori egiteko lanek izan zuten eragina hainbat herritarrengan. Horren adibide ezkerreko argazkian ikusten duzuen Benta Berri baserria duzue.



≈ 1994 Luciano Garitano eta Bittori Umerezzen Benta Berri baserria 1926koa zen. 2002ko Pazkoetan bota egin zuten.




2003 Benta Berri baserria zegoen tokian ekialdeko saihebidera sartzeko biribilunea egin zuten. Labegaraietan.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.



Aukera onenak. Orrazkera apainenak.

ADATS

Herri lagunak 4
BERGARA
943 76 49 51

- Europako azken tendentziak
- Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua
- Solarium bertikala



Boni Laskurain 2
BERGARA
943 76 56 05

- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
- Kerastase tratamend.
- Makillaje bereziak
- Abangoardia lanak

disdira

Masterreka 7
BERGARA
943 76 00 55

- Luzatzeak
- Azken joerak
- Ezkontzak
- Metxak eta moldeatuak



Espoloia 4
BERGARA
943 76 97 75

- Ile luzatzeak
- Aurpegiko larruazal garbitzea
- Solariuma

ileak

Ozaeta 3
BERGARA
943 76 22 54

- Ilerako tratamenduak
- Teknika berriak
- Era guztietako orraskerak

IZARRA

San Pedro 23
BERGARA
943 76 29 72

- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
- Ilerako bitxiak
- Solariuma dutxarekin

Jean Louis David

Ibargarai 43
BERGARA
943 76 22 48

- Teknika aurreratuenak
- Deskontu txartelak
- Solariumerako bonoa
- Estilistaren aholkuak, konpromiso barik

KIZKUR

Bolu 51
BERGARA
943 76 50 32

- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
- Azken joerak
- Puntako markak

ORRASKI

San Pedro 6
BERGARA
943 76 47 01

- Ile apaindegi mistoa
- Kolore bereziak
- Ezkontzak
- Solariuma



Ibargarai 42
BERGARA
943 76 72 76

- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
- Depilazioa eta makillajea
- Solariuma dutxarekin

Pepelu

Zurradero 2
BERGARA
943 76 43 07

- Gizonezkoendako
- Labanaz mozteak
- Azken tendentziak
- Bizartegia
- Kolorea

SANCHEZ

Fraiskozuri 4
BERGARA
943 76 23 70

- Gizonezkoendako
- Labanaz mozteak
- Klasikoa/modernoak
- Bizartegia
- Kolorea



ANTIA
HARATEGIA
Matxiategi 8
BERGARA



BOLU
FRUTATEGIA
Aranerrika 3
BERGARA



GERMAN LETE
ARRAINDEGIA
Oxirondo azoka
BERGARA



IMAZ
HARATEGIA
Aranerrika 1
BERGARA



LETURIA
JON MIRENA
HARATEGIA
San Pedro 24
BERGARA



MERTXE
OILASKOAK
Oxirondo azoka
BERGARA

OSAGAI **ONENAK** GURE KONTU



MUJIK
HARATEGIA
Kalebarren 1
ANTZUOLA

Prestatu, zuk prestatuko
duzu ondoen,
baina osagai onenak
gurean eskuratu
ahal izango dituzu:
zure herriko dendetan.



PRIMI
ARRAINDEGIA
A. Fleming 5
BERGARA



SAN PEDRO
FRUTATEGIA
San Pedro z/g
BERGARA



URCELAY
HARATEGIA
Ibargarai 16
BERGARA



ZARAITZU
ARTISAUA
Fraiskozuri 3
BERGARA